

## Gai jakin baten inguruan egin beharreko bloga dela eta.

### 1. Blogaren edukia dela kontuan hartu beharrekoa

Izenburu egoki bat aukeratu. Berari dagokion argazkia erabili (*diseinuan/goiburua edo cabecera*). Komunak diren osagai guztiak euskaratu (*blogean sartu/ konfigurazioa/ txantiloia*). Begi bistan ager daitezela bitakoaren helburua eta edukia -500 karaktere baino ez- (bitakoran sartu, pertsonalizatu/ txantiloia/ osagai berria jarri/ testua sartu/ gorde). Zure profilaren argazkia (zurea edo ikono bat edo zure identifikagarri) sartu, gura baduzu, baina ahalik eta gauza pertsonal gutxien.

Zure blogean zenbait berri (sarrera edo post) idatzi behar dituzu: koherentziaz osatuak, jatorrizko iturriak egoki aipatua –hiperloturaren bidez-, ortografia akats gabe eta etiketaturik, eta egokia ikusten baduzu osagai grafiko (argazki, ikono...) batez hornitua.

Zure gaiari buruzko bitakoren komentarioa egin dezakezu sarrera batean. Sarrera horretan bitakora horren irudia agertu liteke, irudiz eta testuz azalpena emanez. Irudia lortzeko "Impr Pant" tekla sakatu pantailakoa hartzeko eta gero irudi eraldatu, bere tamaina txikiagotzeko eta sarean jarri ahal izateko -300/200 pixel baino zabalera gutxiagokoa, ahal bada-. Irudiak editatzeko programak EHUko ordenagailutan dauzkazu: PAINT, Microsoft Office Picture Manager, batetik, eta software askekoak (OpenOffice Draw eta The GIM -Photosoften antzekoa-) bestetik. Sarean zuzenean egiteko, berriz, [Snipshot](#) programa duzu.

Egin kopia bat zure blogaren plantilaren (txantiloia). Horretarako honako hau egin behar duzu: *Diseño/ Edición de HTML/ Descargar plantilla completa/ Examinar ...* eta gorde fitxategia zure USB-en edo eposta-n.

Aurrekoaren gain, eduki asko sartzen duzun egunetan egin kopia bat zure blogaren edukia osoaz. Horretarako honako hau egin behar duzu: *Konfigurazioa/ Oinarrizkoa/ Exportatu bloga/ Deskargatu bloga/ Gorde...* eta USBan edo e-posta gorde fitxategia.

Blog batean gauza gehienak ingeleraz datoz. Blogger-plantila ere ingeleraz. Honako lotura bere osagai nagusi edo [eskeletoa](#) aurkitu dezakezu.

**OHARRA: HTML idazkeran zenbait aldaketa egin ditzakezu zure kontura. Hala ere, jakin:**

- Kode baten hasieran datorren hizkiak bukaeran agertu behar da, nahitaez, marra bat aurretik jarrita. Adibidez: `<marquee>Gaur lan eguna da</marquee>`
- Irudien eta zenbait gadget-en altuera eta zabalera aldatu daiteke `width="40"` eta `height="30"` zenbakiak aldatuz.
- Honako bi ikurren `>.....<` artean datorrena aldatu daiteke, gainontzeko hobe ez ukutzea!
- Zenbakiak alda daitezke.
- Saretik hartzen diren irudiek beti `img src` letraz hasten dira, eta jarraian irudiaren URL-a agertzen da. Adibidez: `<img src=http://relojesweb.imitable.com/swf/clock11.swf>`
- Hizkien kolorea eta tamaina ere aldatu daitezke, horretarako aldatu behar da kodearen [kolorea](#) eta hizki motaren [tamaina eta itxura](#).
- `<center>testua erdian jartzen du</center>`; `left` eta `right`, berriz, ezkerrean eta eskuman.
- Hiperlotura bat jartzeko horrela idazten da: `<a href=http://consigna.ehu.es">EHUko zaindegia</a>`
- Taula bat sartzeko honako kodea erabili behar da (1 da bordearen tamaina eta 0 jarriz gero ez dauka marrarik):  
`<table border=1><td>Hemen edukia sartzten da</td></table>`
- Taula bi zutaberekin: `<table border=1><td>Izenburua 1</td><td>Izenburua 2</td></tr><tr><td>Edukia 1</td><td>Edukia2</td></tr></table>`
- Zutabe gehiago jartzeko `<td></td>` gehiago jarri eta hiladetarako, berriz, `<tr>` gehiago jarri baina `</tr>` jarri barik.
- Honako taulan, berriz, hondoa eta letra aldatu dugu:
- `<table border=1 bordercolor="silver" bgcolor="black"><td><font color="white">Hemen doa idazten duguna</font></td></table>`
- Beste Scripts (testu-formak) batzuk [erabiltzeko](#). Scripts-en [efektu batzuk](#) ikusteko.

## 2. Zure blogean sartu ditzakezun osagaiak

### 2.1. Oinarrizko osagaiak

1. Idazten duzun post edo berri bakoitzean 4-5 etiketa jarri. Sarreratxo bakoitzaren beheko partean dago leihatilan idatzi behar dituzu hitzok koma batez bananduz.
2. Zure blogaren sarrera guztiak [pantaila bakar](#) batean agertu daitezten
3. Post edo berri batean behintzat [taula](#) bat sartu. Modu desberdinak daude. [HTML para Tablas](#)
4. Lotura (link edo hiperlotura) interesgarrien zerrenda osatu (ebook, link interesgarri, olerki, bertso, musika, e.a. zure gaiarekin lotuta). Asko badira sailkatu 6 edo 7 kategoriatan, Menu [gorakaria](#) erabiliz.).

5. Sartu post edo sarrera batean zure gaiari loturiko webquest baten komentarioa eta webquest-aren irudia lortzeko "Impr Pant" eta abar aplikatuz.
6. [Copyscape](#) erabili, zure bloga plagioaren kontra babesten duzula adierazteko. Horretarako "Page protegged by COPYSCAPE Do Not Copy" etiketa jarriko diozu zure blogari.
7. [Creative Commons](#) lizentzia –euskaraz idatzita, noski- erabili zure blogako. [Lizentzia mota dela eta](#) Creative Commons ikonoa jarri eta zure lizentziaren nolakoa –ematen dizuten kodea itsatsiz- agertu dadila edonork ezagutu nahi ba du zerbait zuretik hartzekotan. Hizkuntzak agertzen diren tokian aukeratu euskara eta lizentziaren baldintzak euskaraz agertuko dira zure blogean. Lizentzia lortzeko arazoa baduzu kopiatu honako hau:

```
<a href="http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/" rel="license"></a><br/>Blog hau Creative Commons-en <a href="http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/deed.eu" rel="license">lizentziapean dago</a>
```

8. [YouTube](#) ([Euskaltube](#), [Google video](#), [Delealplay](#), edo antzekoa) erabili "zurea ez den bideo bat" zure blogean jartzeko. [Nola?](#) Player hori handiegi gelditzen bazaizu aladatu `width="120"` eta `height="150"` ataletan datozen zenbakiak.
9. [YouTube](#)-n ([Euskaltube](#), [Google video](#), [Delealplay](#), edo... antzekoan) [harpidetu](#) zaitez "zurea den bideoen bat" jartzeko eta adierazi post batean zer da bideo horretan erakusten duzuna. Horretarako bideoaren URL-a edo Embed kodeak zure sarreran itsatsi.
10. [Slideshare](#) ([Thumbstacks](#), [AuthorStream](#), edo antzekoa) erabili sarean dagoen Power Point edo multimedia errazak zure blogean sartzeko. [Presentaciones Power Point on-line](#).
11. [Slideshare](#) ([Thumbstacks](#), [AuthorStream](#), edo...) tresnan harpidetu (*sign up*) zaitez "zurea den P.Point edo aurkezpen" errazak jartzeko (*up load*) eta ikaskideei horren berri eman zure blogearen bidez. [Presentaciones Power Point on-line](#)
12. [Goear](#), ([Poderato](#), [Podomatic](#), [Juice](#), [Castpod](#), [CastPodder](#), [BooMP3](#), [Odeo](#) edo [Songbird](#)) erabili zure blogean zure gaiarekin lotura duen elkarrizketa, kanta, olerki, bertso, aipu... edo, jartzeko.
13. [Goear](#) (Poderato, [Podomatic](#)-ean, [Juice](#), [Castpod](#), [CastPodder](#), [BooMP3](#), [Odeo](#) edo [Songbird](#) edo horrelakoetan) harpidetu zaitez zure podcast-a sortzeko eta gero zure blogean sartu sortu duzun soinu artxiboa. [Odeo](#)-k baditu [zenbait muga](#). Kontsultatu [¿cómo](#)

- [hacer un post gratis?](#) Eta [OdeoStudio y Odeo](#). [Beste software batzuk erabiltzeko](#) . Ikus ere: “[Blogak Lehen Hezkuntzako ikasgeletan](#)”.
14. Erabili [Issuus](#) ([Scribd](#), [Calameo](#), SpotBit, Yudu, Myebook, Mixbook, Docstoc, Doopaper edo antzekoak) zure gaiarekin lotura duen euskal argitalpen bat adierazteko. Horretarako bertara joan eta kopiatu bere “embed” kodea. Justifikatu sarrera horretan zergatik dakarzun argitalpen hori zure blogera.
  15. Harpidetu zaitetz [Embedr](#) aplikapenean, zure gaiarekin lotura duten bideo zerrenda propioa osatzeko.
  16. [Picasa](#)-n ([Facebook](#), [Zoomr](#), [Flickr](#)-ean edo antzekoan) argazki biltegia osatu zure gaiarekin lotura duten argazkiekin, hau da, on-line edo share-on jarri argazki bilduma hori. Egin komentaritxo horren berri eman ez eta zer dela eta uste duzun besteentzat interesgarri izan litezkeela argazkiok.
  17. Harpidetu zaitetz hezkuntza atari batean, edo zure gaiarekin lotura duten blogetan Horretarako erabili Mozilla Firefox eta RSS ikono laranja agertzen den tokian sakatu eta kopiatu itsasteko honako honetan: “Diseño/Añadir gadget/ Feed/ Guardar”.
  18. [Zabaldu sarrera](#) bat zure izenean [del.icio.us](#) (edo [Connotea](#)-n, edo Diigo, edo antzerakoan) zerbitzuan zure laster-markak adierazteko. [Zertarako del.icio.us laster markak?](#). Jar ezazu zure del.icio.us-en ikonoa eta linka.
  19. Sarrera luzeetan “[irakurri gehiago](#)” jartzea.
  20. Blogera heltzen dituen komentarioen moderazioa aktibatzea. (Zure blogean sartu, Konfigurazioa/ Komentarioak/ Moderatu/ Gorde aldaketak).
  21. Bitakoraren iPod-a osatu. [Player](#) bat ere jar dezakezu.
  22. [Kontagailua](#) jarri. Kontagailu [on-line](#) ere.
  23. [Menu gorakari](#) bat sartu zure blogean.
  24. [Testua birsatua](#) duen post edo sarrera bat idatzi.
  25. [Markesina](#) jarri.
  26. Inkesta bat sartu (Añadir/Gadget/Encuesta).
  27. [Erlojuren](#) bat jarri. Edo [data eta ordu](#) adierazlea. [Egutegi](#) bat ere. <http://www.free-blog-content.com>, [RelojesWeb](#)
  28. Google bilatzaileak jarri sarean (Añadir/Gadget/Google) aurkitzeko, zein [blog bertan aurkitzeko](#) zein aurkitzekoak.

### 3. Zenbait kode eta prozedura

#### 3.1. Post batean honako elementuren jartzekotan idazkerarako HTML intergunea aukeratu behar duzu:

##### Markesina bat jartzeko

Idatzi sarrera (post-a) HTML modura. Idatzi behar duzun testua eta marquesina modura atera nahi duzuna kode honekin idatzi behar duzu:

```
<marquee>Azaroaren 1ean eta 2an ekasi-n zenbait apunte jarri dizkizuet.</marquee>
```

##### Testua birsartua

Koadro horren bitartez nahi dugun luzerako testua irakur daiteke desplazamendu barra erabiliz. Idazten duzun post horretan aukeratu HTML idazteko era. Bertan idatzi nahi duzuna eta testu birsartuan idazteko kode hau bertan itsatsi. Tamaina zure nahiaren arabera alda dezakezu.

```
<span id="fullpost"><div align="center"><pre style="overflow: auto; width: 400px; height: 150px;"><div align="left"><span style="font-size: 100%;">
```

Bitarte honetan idatzi behar duzu koadroan agertu behar den testua. Luzera ez da arazoa..

```
</span></div></pre></div>
```

##### Menu gorakaria

Adibide gisa hona hemen hurrengo kodea. Jakiteko nola funtzionatzen duen sartu kodea zure blogaren sarrera batean edo gadget modura eta ulertuko duzu bere funtzionamendua. Adibide modura honako hau duzu, baina zuk eraiki zurea berdez dagoena aldatuz:

```
<form>
<select onchange="top.location.href=this.form.links.options
[this.form.links.selectedIndex].value" name="links">
<option selected/>Euskal Herriko Unibertsitatea<option value="http:www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p031-9277/eu/">Bilboko Magisterio
```

```
<option value="http://moodle3.ehu.es"/>Moodle  
<option value="http://www.ehu.es/correow/">Eposta  
<option value="http://www.biblioteca.ehu.es/p006-9117/eu"/>Liburutegia  
<option value="http://consigna.ehu.es"/>Zaindegia  
</select></form>
```

### 3.2. Blogean osagarri gisa –blogaren BlogRolling-ean- ager daitezkeenak (Diseinua/ Añadir gadget/ Añadir elemento HTML/Java Script/... Gorde aldaketa)

#### Erlojua jartzeko

```
<tr><embed style="" width="40" src="http://relojesweb.imitable.com/swf/clock11.swf"  
wmode="transparent" height="30" type="application/x-shockwave-flash"><param  
value="transparent" name="wmode"/></embed></tr><tr><td align="right"></td></tr><br/>
```

OHARRA.- Gehiago Google-n bilatu “blogger + reloj” idatziz.

“blogger + oclock” idatziz

“blogger + erloju” idatziz

#### Egutegia jartzeko

```
<br><center><iframe src="http://www.free-blog-  
content.com/Calendars/calendar00411.htm" width="120" height="150"  
marginwidth="0" marginheight="0" frameborder="no" scrolling=no  
allowtransparency="true"></iframe></center>  
<center><a style="font-size: 3mm" href="http://www.free-blog-content.com/">Free Blog  
Content</a></center></br>
```

#### Bisitari kopurua (zure blogean sartu direnen kopurua)

Zure kasuan aldatu blogaren izena zurea jarritz:

```
<script  
src="http://fastwebcounter.com/secure.php?s=http://berrikari.blogspot.com"></script>
```

#### Bisitariak orain (momentu honetan konektaturik daudenak)

```
<script src="http://fastonlineusers.com/on2.php?d=  
http://berrikari.blogspot.com" type="text/javascript">  
</script>
```

### Bilatzailea (zure blogaren edukian bertan zerbait aurkitzeko)

```
<form action="/search" style="display:inline;" method="get">
<input id="s" onfocus="this.value=&#39;&#39;" value="Bilatzeko testua"
class="formsuch" name="q" size="17" type="text" />
<input alt="Buscar" src="http://img142.imageshack.us/img142/7/searchiconry7.png"
class="searchicon" value="Search" name="submit" type="image" />
</form>
```

### Testua birsartua

Koadro horren bitartez nahi dugun luzerako testua irakur daiteke desplazamendu barra erabiliz. Idazten duzun post horretan aukeratu HTML idazteko era. Bertan idatzi nahi duzuna eta testu birsartuan idazteko kode hau bertan itsatsi. Tamaina zure nahiaren arabera alda dezakezu.

```
<span id="fullpost"><div align="center"><pre style="OVERFLOW: auto; WIDTH: 400px;
HEIGHT: 150px"><div align="left"><span style="font-size:80;">
```

Bitarte honetan idatzi behar duzu koadroan agertzea nahi duzun testua. Luzera ez da arazoa.

```
</span></div></pre></div>
```

```
</span><span id="fullpost"></span>
```

### Esaldi baten hizkien kolorea aldatzeko

```
<table bgcolor="#996699"><tbody><tr><td>Adieraztu testu lerro bat kolorez joan beharko
dena</td></tr></tbody></table>
```

OHARRA: Hizkien kodeen koloreak ezagutzeko: <http://ar.geocities.com/coloreshtml/>

### Hitzetan edo esaldietan aldaketa batzuk egiteko

<b>Hau letra beltzaz idatzita agertuko da</b> edo <strong>Hau letra beltzaz idatzita agertuko da</strong>

<i>Letra etzanaz idazteko</i>

<u>Agertzen den testua azpimarratzeko</u>

<del>Hau marratuta agertuko da</del>

<tt>Teletipo moduko letra agertzeko</tt>

<i>Letra etzana agertuko da</i> edo <em>Letra etzana agertuko da</em>

<hr> lerro bat sortzen du

- Linea bat kolorez sartzeko: `<hr color="blue" size=3>`
- Linea zabalera (width) adierazteko: `<hr color="blue" size=3 width="150">`

`<a href =http://www.ehu.es/>EHU</a>` Hiperloturak jartzeko

`<br>`Lerroak `<br>` apurtzen ditu eta testua bi lerrotan agertzen da

`<blockquote>`Hemen doa testua aipu bat da (edo zita ba)`</blockquote>`

`<li>`hemen idatziko da zerrendaren lehen hizta edo esaldia`</li>` Horrela, lista (edo zerrenda) osatzen da baina alfabetikoki ez.

Hizkien tamaina.

`<h1>`.....`</h1>` Tamaina handiena

`<h2>`.....`</h2>`

`<h3>`.....`</h3>`

`<h4>`.....`</h4>`

`<h5>`.....`</h5>` Tamaina txikiena

#### Zerrenda bat osatu baina zenbakiak jarri gabe

`<ul>`

`<li>`hemen lehen paragrafokoa idazten da

`<li>`hemen bigarren paragrafokoa idazten da

`<li>`hemen hirugarren paragrafokoa idazten da

`<li>`hemen eta abar paragrafokoa idazten da

`</ul>`

#### Zerrenda bat osatu baina zenbakiak jarri gabe (hiperloturak agertuz)

`<ul>`

`<li><a href=http://www.ehu.es/>EHU</a></li>`

`<li><a href=http://www.google.com/>Google</a></li>`

`<li><a href=http://berrikari.blogspot.com/>Berrikari bloga</a></li>`

`</ul>`

#### Testu bati marko bat jartzeko

`<legend>`Hemen markoan sartu nahi den testua idatziko dugu`</legend>`

#### Taulak nola sortu zure blogean sartzeko



Zure blogean kodea sar dezakezu gadget modura (HTML/Javascrip) edo sarrera batean, idazten duzuna HTML modura idazteko aukera

Kode honetan datorren guztia kopia eta **urdinez datorrena itsatsi behar duzun egiten duzun lerro bakoitzeko**. Zenbakiak aldatu daitezke norberaren beharraren arabera: &nbsp; tokian datorrena zure testuaz ordezkatu behar duzu.

```
<table border="1" width="70%" cellspacing="1" id="table1">
<tr>
<td width="50">&nbsp;</td>
<td width="75">&nbsp;</td>
<td width="80">&nbsp;</td>
<td width="80">&nbsp;</td>
</tr>
</table>
```